

GOBERNU BATZARRA

2016. 09. 27

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamaseiko irailaren hogeita zazpian, goizeko 08:00tan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
Olatz Peon Ormazabal	
Zinegotziak:	
Patxi Amantegi Zubiria Jokin Azkue Arrastoa Nerea Letamendia Belloso Iñigo Alonso Sarasibar	1.- Aurreko akta onartzea. 2.-Nazioarteko Lankidetzeta Programa: eskaeren azterketa eta dirulaguntzen banaketa.
Beh. Behineko Idazkaria:	3.-Presoen familientzako dirulaguntzak emateko oinarriak.
Karmele Contreras Goikoetxea	
Kontuhartzaitzako Teknikaria:	4.-Prebentzioa eskolan: Irudi biziak programa.
Paulino Alonso Eraso	5.-Gazte taldeei dirulaguntza banaketa. Proposamena. 6.-Gizarte zerbitzuetako buruaren oinarriak onartzea. 7.-30/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2016ko irailaren 19an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Nazioarteko Lankidetzeta Programa: eskaeren azterketa eta dirulaguntzen banaketa.

Gizarte Politikak eta Osasun Batzordeak aurkeztu du Udal Lankidetzari buruz egin behar diren dirulaguntzen banaketa proposamena.

Aipatutako proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENEA.- Tolosako udalerrian Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren arloan lan egiten duten taldeei dirulaguntza hauek ematea:

1- ONARTUTAKO DIRULAGUNTZAK:

GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAK	PROPOSAMENA	
-ABAY (NILO AZUL) ONG. Asociación para el Desarrollo en Etiopia. Proiektuaren kodea: 04-A-ETI-2016. Etiopia (Oromia) proiektua.	A. Atala – 10.000 € ematea.	B. Atala- Ez dago eskaerarik.
-KOKU-YO – ELKARTASUNA ETA LANKIDETZA. Proiektuaren kodea: 06-A-KOL-2016. Kolonbia (Caucako harana).	A. ATALA - 4.340 € ematea.	B. ATALA – 350 € ematea.
-TOLOSALDEA SAHARAREKIN. Proiektuaren kodea: 07-A-SAH-2016.	A. ATALA- 7.500 € ematea.	B. ATALA - 2.000 € ematea.
-ITAKA-ESCOLAPIOS FUNDAZIOA. Proiektuaren kodea: 05-A-KAM-2016. Kamerun (Yaounéko Abobo auzoa).	A. ATALA - 5.900 € ematea.	B. ATALA – Ez dago eskaerarik.
-AMAROSKO AUZO ELKARTEA. Proiektuaren kodea: 01-A-NIK-2016. Nikaragua.	A. ATALA – 12.691,15 €	B. ATALA - Ez dago eskaerarik.
-FASFI-Fundación Ayuda Solidaria Hijas de Jesus. Proiektuaren kodea: 02-A-KOL-2016. Dominikar Errepublika.	A. ATALA - 10.050 € ematea	B. ATALA – Ez dago eskaerarik.
-MUGEN GAINETIK. Proiektuaren kodea: 03-A-PER-2016. Peru (Lima).	A. ATALA – 14.998,08 € ematea	B. ATALA – Ez dago eskaerarik.
- JATORKIN. Beraien horniduretarako.	A. ATALA – Ez dago eskaerarik	B. ATALA – 400 € ematea.

- ASOCIACION DE INMIGRANTES “BOOLOO” Beraien horniduretarako eta taldearen aurkezpen jai festarako.	A. ATALA – Ez dago eskaerarik	B. ATALA – 1.150 € ematea.
- ASOCIACION COLECTIVO SAHARAUI EN GIPIZKOA. -Beraien horniduretarako.	A. ATALA – Ez dago eskaerarik.	B. ATALA – 300 € ematea.
Guztira.	A. ATALA : 65. 479,23 €	B. ATALA: 4.200,00 €

BIGARRENA.- Erabilgarri gelditu den 5.320,77 €.ko kopurua, aurtan, gertakizun larrietara zuzentzea; eta horrelakorik gertatzen ez bada, kopuru hori Euskal Fonda elkarteari bidaltzea proiektu bat kofinantziatzeko.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari eta interesatuei.

3.- Presoen familientzako dirulaguntzak emateko oinarriak.

Dirulaguntzen helburua da presoen familiei laguntzea, bisita egiteak dakarren gastuari aurre egiten.

Gizarte Zerbitzuetako kordinatzaileak aurkeztu du dirulaguntzak banatzeko ezarrita dauden baldintzen proposamena eta, besteak beste, honako hau jasotzen da: dirulaguntzak proportzionalak izango dira Tolosaren eta presoak dauden kartzeletako udalerrien arteko kilometro kopuruarekiko.

Aipatutakoa kontuan izanik eta Gizarte Politikako batzordeak egin duen proposamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Dirulaguntzak banatzeko baldintzak onartzea.

BIGARRENA.- Gipuzkoatik kanpoko kartzeletan dauden presoen familiei, guztira, 3.320 €-ko dirulaguntza ematea.

HIRUGARRENA.- Dagokion deialdia prentsara bidaltzea.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

4.- Prebentzioa eskolan: Irudi biziak programa.

2016-2017 ikasturteko prebentzio programak.

Bizitza osasungarria eramateko eta drogen kontsumoaren aurrean jarrera arduratsua edukitzeko, Gizarte Zerbitzuetako Prebentzio teknikari arduradunak honako hau proposatu du:

- PREBENTZIOA ESKOLAN – ZINESKOLA:

Zine emanaldiak hezitzaileak dira: osasunarekin eta droga-menpekotasunen prebentzioarekin zerikusia duen gai-sorta lantzen da.

DBHko 3., 4. eta batxilergoko ikasleei zuzenduta 3 pelikula eta 3 film labur. Pelikula bakoitzaren material didaktikoa.

Pasa den ikasturtean, Tolosako 310 ikaslek parte hartu zuten eta kostua: 2.970 €.koa izan zen. Irudi Berria Leidor zinema: 157,30 €/saioa.

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Zineskola programa onartzea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

5.- Gazte taldeei dirulaguntza banaketa. Proposamena.

Kultura, Festak eta Gazteria batzordeak irailaren 14an egindako proposamena ikusita, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU:

LEHENA.- Ondoren aipatzen diren dirulaguntza banaketa onartzea eta oinarritan zehazten den bezala, kopuruen %50 erabakiaren jakinarazpenarekin batera ordaintzea:

Barrabun Kultur elkarte	3.500,00€
Atsedena aisialdi taldea	1.417,03€
Kazkabarra taldea	1.486,72€
BOX A arte elkarte	1.602,87€
Mendu aisialdi eskola	1.649,33€
San Bernardo eskaut gia aldea	1.509,95€
Maskarreras taldea	1.022,12€
Kirikiño Aisialdi taldea	1.811,94€
GUZTIRA	13.999,96€

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Kultura, Festak eta Gazteria departamentuari eta interesatuei.

6.- Gizarte zerbitzuetako buruaren oinarriak onartzea.

Urte hasieran Gizarte zerbitzuburuaren plaza betetzeko oinarriak onartu ziren; behin prozedura amaitu ostean, plaza bakante gelditu da, horregatik beste deialdi berri bat egin behar da aipatu plaza bete ahal izateko.

Honela, plaza hutsik geratzeko arrazoen artean, aurreko deialdian eskatu ziren ukanbeharrak oso zorrotzak zirela ondorioztatu zen. Horretagik, oraingo honetan, ukanbeharrak malgutu dira, honetarako udaleko Lanpostu zerrenda aldatuz eta hautaketa prozesuan parte hartzeko bakarrik gizarte langilearen titulazioa eskatu delarik.

Halaber, aipatu da oso aldaketa gutxi daudela, batipat egokitzapen teknikoak dira, gaitegian eta prozeduran eta bestalde, konkurtso fasean Masterra baloratuko dela informatu da.

Hortaz, gaia aztertu ondoren, eta Giza Baliabide eta Udal Antolakuntza batzordeak egindako proposamenarekin bat etorri, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta, Gobernu Batzar honek,

ERABAKI DU

LEHENA.- Gizarte Zerbitzuetako buruaren plaza betetzeko deialdia eta oinarriak onartzea.

BIGARRENA.- Prozedura martxan jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean oinarriak argitaratuaz.

7.-30/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzaitzak **30/2016** faktura zerrenda aurkeztu du; **420.590,54 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- 30/2016 faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontu-hartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.

ALKATEA

Beh. Beh.IDAZKARIA

Olatz Peon Ormazabal

Karmele Contreras Goikoetxea